



EMAKUME MUSKIZTARREN HISTORIAK ARGAZKIETAN

PARTE HARTZAILEAK

Muskizko bizilagun guztiek eta Muskizko hezkuntza zentroetako 12 urtetik gorako ikasle guztiek har dezakete parte, aurkezten diren argazkiak egin badituzte eta argazkien gaineko eskubideen jabe badira.

GAIAK

Esanahi berezia duten edo Muskizko emakume batekin lotuta dauden Muskizko leku batekin lotuta egon behar dira argazkiak.

Irudietan Muskizko paisaiak erakutsi beharko dira, eta esaldi edo testu labur bat txertatu beharko da, Muskizko emakume batentzat leku horrek duen edo izan duen esanahia adieraziz, **emakumeek argazkiak egiten dituzten pertsoneri adierazi bezala**. Kontatutako bizipenari edo historiari garrantzi handiagoa emango zaio, argazkiaren kalitateari baino.

ARGAZKI KOPURUA:

- Pertsona bakoitzak, gehienez, 2 argazki aurkeztu ahalko ditu.

ARGAZKIAREN FORMATUA

- Argazkiak sakelako telefonoen bidez egin behar dira.
- **Argazkiak JPEG formatuan aurkeztuko dira**, eta zuri beltzean edo koloretan egin ahal dira.
- Argazkiek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute, eta argazkiak egin dituztenak izan behar dira parte hartzaileak.

AURKEZPENA

- Argazkiak posta elektronikoz bidali behar dira honako helbide honetara:
berdintasuna@muskiz.com
- Irudiez gain, e-mailean honako datu hauek ere adierazi beharko dira:
Izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa (argazkiak egin dituztenen datuak)
Argazkiaren izenburua eta azalpen testua, bai eta argazkia ze lekutan atera den ere, leku horrek ze emakumerentzat duen esanahi berezia aipatuz.
JPEG artxiboaren izenak eta izenburuak bat etorri behar dute.
Parte hartzaile bakoitzari mezu elektroniko bat bat bidaliko zaio, irudia ondo jaso dela eta ondo ikusten dela baieztatzeko.

EPEA

Irudiak aurkezteko epea 2018ko martxoaren 25ean amaituko da, 24:00etan.

JABEGOIA

Saritzen diren argazkien egile-eskubideak Muskizko Udaleko Berdintasun Sailaren esku geratuko dira. Muskizko Udaleko Berdintasun Sailak denbora mugarik erabili ahalko ditu, irabazi asmorik gabeko jardueretan, triptikoen edizioetan, karteletan, egutegietan, katalogoetan, erakusketetan, web publikazioetan, sare sozialetan, betiere hirugarrenei laga gabe. Argazkiak horrela erabiltzeagatik ez zaie lanen egileei ordaindu beharko. Argazkietako egileen izenak ipiniko dira argazkietan.

ERAKUSKETA

Aurkezten diren lan guzti-guztiak ikusgai jarriko dira Muskizko Udal Liburutegiko erakusketa batean. **Aurkezten den argazki kopuruaren arabera, Berdintasun Sailak eta Kultura Sailak herri bozketa bat egin ahalko dute, eta herri bozketa horretan boto gehien jasotzen duten argazkiak saritu ahalko dira.**